



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 6a

30. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mobbingari buruzko plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren karietara. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz. Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak bazter utzia (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2006ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legearen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko boluntarioen lana arautu zen, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44. artikuluko 17., 14. eta 18. zenbakiek Nafarroari erabateko eskumena esleitu baitzioten gizarte laguntzaren, aisialdiaren erabilera egokiaren, komunitatearen garapenaren eta hirugarren adinekoen arloetan.

Legeak boluntarioen entitateei aseguru-poliza bat izenpetzeko betebeharra, besteak beste, ezartzen zien, boluntarioek boluntario lanetan aritzen ziren bitartean jasaten ahal zituzten eritasun arriskuei aurre egiteko.

Foru lege horrek indarra hartu zuenetik izaniko esperientziak direla-eta, boluntarioen entitateek poliza horiek izenpetzerik eta, hortaz, baldintza

hori betetzerik ez dutela frogatu da. Beraz, onetsitako araudia ezin zen bete.

Hori horrela, egokitzat jo da foru lege hori aldatzea, batetik, boluntarioen entitateei ezarritako betebeharrak merkatuko benetako aukeretara egokitu ahal izateko eta, bestetik, argi uzteko estaldurak bere gain hartu beharko dituela hirugarrenei eragiten zaizkien kalte-galerak.

Artikulu bakarra. Bolondres lanari buruzko martxoaren 27ko 2/1998 Foru Legea aldatzea.

2/1998 Foru Legearen 6.3.b) eta 11.2 artikulua aldatzen dira. Honelaxe geldituko dira:

Bat. 6.3 artikulua.

“b) Boluntario-lanean aritzearen zuzeneko ondorioak diren eritasun, istripu eta kalte-galera arriskuen kontra aseguratuak izatea, erregelamenduz ezartzen diren ezaugarri eta diru kopuruen arabera.”

Bi. 11. artikulua.

“2. Aipatu entitateek aseguru-poliza bat izenpetu beharko dute, boluntarioek boluntario lanetan aritzen diren bitartean izaten ahal dituzten eritasun eta istripu arriskuei aurre egiteko, eta beren jardueraren ondorioz eragin ditzaketen kalte-galerengatik hirugarrenen aurrean erantzukizuna hartzeko.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2006ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztutako Nafarroako administrazio publikoetan publizitate eta komunikazio instituzionala arautzen dituen Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2006ko otsailaren 13ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2006ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurriak har ditzan administrazio publikoek Ekonomia Solidarioaren Nafarroako Sarean parte har dezaten

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri juridikoak, finantzarioak eta antolamenduzkoak har ditzan Nafarroako Ekonomia Solidarioaren Sareak administrazio publikoetan parte har dezan, eta babesa eman dakien banka etikoaren abantaileri buruz kontsumitzaileei informazioa ematen dieten erakunde horiek garatzen dituzten jarduera batzuei.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da *mobbingari* buruzko plan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da *mobbingari* buruzko plan bat egin dezan."

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 30ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko istripuei aurre egiteko plan estrategikoa egin dezan".

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 30ean egingadako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Aralar parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Parlamentua premiatzen da 18/98 sumarioa epaiketa politikoa dela azpimarra dezan".

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 30ean egingadako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko otsailaren 27ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Maria Azpilkuetakoaren irudia nabarmentze aldera ekitaldiak antola ditzan Baztanen, Frantzisko Jatsukoaren jaiotzaren V. mendeurrenaren kariatara".

Legebiltzarrak 2006ko martxoaren 30ean egingadako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 6ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Kontuen Auzitegiari eskatzen zaio fiskalizazio txostena egin dezan Nafarroako Ubidearen III. zatiko obren kontratuaren adjudikazioari nahiz exekuzioari buruz"

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak, 2006ko martxoaren

29an egindako bileran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2006ko martxoaren 13ko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko martxoaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	